

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

408

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 27koa, Osasuneko sailburuordearena, 2022ko deialdian aurkeztutako osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak emateko dena. Lerroa «Interes bereziko ekintza osagarriak».

Osasuneko sailburuaren 2022ko apirilaren 5eko Aginduaren bitartez (2022ko apirilaren 25eko EHAA, 79. zk.), osasunaren alorreko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzen 2022ko deialdia iragarri zen.

Agindu horrek 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurkeztu diren eskabideak lerro bakoitzeko prozedura desberdin bat hartuta izapidetuko dira (6. artikuluan adierazitakoarekin bat), eta bakoitza bere ebazpenarekin amaituko da. Osasuneko sailburuordeari dagokio agente eskatzaileek proposatutako gai guztiak erabakitzeko ebazpenak ematea, Balorazio Batzordeak proposatuta.

«Interes bereziko ekintza osagarriak» lerroan aurkeztu diren eskabideak eta Balorazio Batzordearen proposamena aztertu dira, eta harekin ados egonik, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «Interes bereziko ekintza osagarriak» lerroari aurkeztutako eskaerak onartzea, zeinak eranskinean jasota dauden.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuari, hilabete epean, ebazpena EHAA-n argitaratzen denetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan. Gainera, egoki iritzitako beste edozein errekurtso ere erabil dezakete.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 27a.

Osasuneko sailburuordea,
JOSÉ LUIS QUINTAS DIEZ.

ERANSKINA

Interes bereziko ekintza osagarrietarako eskabideen zerrenda, 2022ko deialdian aurkeztuta eta onartuta.

Espediente-zenbakia	Izenburua	Agente onuraduna	Dirulaguntza (euro)
2022444001	BDIHren Osasun Nodoaren koordinazioa	Tecnia Research and Innovation Fundazioa	30.056,40
2022444002	HDAB ikerkuntza: Euskadiko Osasun Sistemaren osasun-datuak kudeatzeko eredia eta plataforma diseinatzea eta abian jartzen laguntzea	Tecnia Research and Innovation Fundazioa	32.905,95
		Bioaraba Osasun Ikerketa Institutua elkarte	7.000,00
		Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua elkarte	7.018,00
		Biodonostia Institutua elkarte	7.000,00
		Kronikgune - Osasun Zerbitzuen Ikerketa Institutua elkarte	26.499,00
		Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)	31.795,78
		Vicomtech - Ikus-interakzioko eta Komunikazioko Teknologien Zentroa	27.415,58

Interes bereziko ekintza osagarriak, guztira: 169.690,71 euro.